

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BIRGARAGOIENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Etxebizitza bat alokatzea**

Birgaragoiengo Kontzejuak, 2018ko uztailaren 7ko bilkuran, erabaki du bere etxebizitza bat errentan emateko esleipen prozedura hastea eta alokatze hori arautuko duen baldintza agiria onartzea.

#### Oinarriak

##### **1. Gaia**

Birgaragoiengo Kontzejuaren etxebizitza bat errentan ematea. Etxebizitza hori Birgarako Arrosarioko Andra Mariaren kaleko 3an (3 katastro poligonoa 113 lurzatia) dago.

Etxebizitzak 90 metro koadro ditu, lehen solairuan dago eta sukaldea eta komuna ditu.

##### **2. Eskatzaileek bete behar dituzten betekizunak**

Adinduna edo adingabe emantzipatua izatea, gaitasun juridiko osoa eta jardutekoa izatea eta Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 71. artikuluan legez kontratatzeko xedatutako debekuren bat ez duela egiaztatzea.

##### **3. Lizitazio oinarria. Errenta**

Lizitazio oinarria 6.000,00 euro da; izan ere, hileko errenta 500,00 euro izango da. Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da.

##### **4. Kontratuaren iraupena**

urtebete, baina luza daiteke.

##### **5. Agiriak eskuratzea**

Baldintza agiria Arraia-Maeztuko udal bulegoetan dago eskuragai, Arraia-Maeztun, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo 15 egunetan.

##### **6. Eskaerak aurkeztea**

Eskaerak Arraia-Maeztuko udal bulegoan aurkeztuko dira, jendea hartzeko orduetan, alegia, 08:00etatik 15:00etara. Horretarako, hamabost egun izango dira lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Azken egun hori larunbata edo egun baliogabea balitz, hurrengo egun balioudunean ere aurkeztu ahal izango lirarteke.

##### **7. Behin betiko fidantza**

Errentaren bi hilabete.

##### **8. Gastuak**

Esleipenduna salbuetsita dago lizitazio honi dagozkion iragarkiak ordaintzetik.

##### **9. Esleipen irizpidea**

Alokairu eskaintzarik handiena. Lizitazio oinarria gorantz hobetzea.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Birgaragoien, 2018ko uztailaren 10a

*Errejidore-lehendakaria*  
**LUIS REMÓN PIPAÓN**